

PERUKO HIZKUNTZA ZAHARRA

Betiko eta gaurko erritmoak bat eginda, kitxua ama hizkuntzan

 **HIZKUNTZA /** Fernando Gimeno EFE

Perun hiltun gehien dituen hizkuntza da kitxua, herrialdean baztertua izateko arriskuan dagoen hizkuntza zaharra. Hartara, bizirik iraun dezan, hizkuntza zaharra musika genero berriekin janzten ari dira zenbait talde. Uchpa taldeak 25 urte daramatza jada saiakera horretan eta azkenaldian gero eta talde gehiago ari da animatzen.

Kitxua da Ameriketako jatorrizko herrien hizkuntzarik erabiliena, nahiz eta bera ere bazterketaren biktima izan den. Kitxua hiltun gehien hartzen dituen Perun hizkuntza zaharra eta erritmo modernoak elkartu dituzte, bazterketaren aurkako borrokan rocka, bluesa, popa, rapa eta trapa oso lagun onak baitira. Inken hizkuntzak eremu berrietara zabaltzen nahi du.

Musikari dagokionez, ingelesezko eta gaztelaniazko eskaintzak oso zabalak eta pluralak dira herrialdean. Testuinguru horretan, Peruko bertako zenbait artistak Andeetako betiko generoak belaunaldi berriekin gehien maite dituzten erritmoekin fusionatu dituzte, komunikaziorako kitxua ama hizkuntza erabilita. Zortzi mi-

lio lagunek hitz egiten dute kitxuaz Hego Amerika osoan, edo ikasi zuten behintzat, herriar batek baino gehiagok hizkuntza zaharra ezkatatzea nahiago izaten baitu, bazterketarekin lotzen duelako.


Uchpa (“errautsak”) kitxuaz izeneko rock eta blues taldea izan zen aitzindaria. 25 urte daramatza *runasimi* edo “geure hizkuntza” erabiltzen Andeetako folklorea beren erritmoan eskaintzeko. Fredy Ortizek abesten du eta Marcos Maizel gitarrista da pieza gehien egilea. «Geure musikak Andeetako arima dauka. Ez da bakarrik rocka kitxuaz abestuta. Andeetako nekazari batek geure kantak entzunez gero, arima hori sentitu egingo du», esan dio Ortizek EFE agentziari.

Musikari bihurtu aurretik polizia izan zen Ortiz, Sendero Luminoso talde armatua indartsu zen garaian. «Gatazka biolento batean bi aldeek galtzen dute. Suntsiketarik errautsak besterik ez dira geratzen, kitxuaz *uchpa* esaten duguna, hitz laburra eta fonetikoki ederra. Kitxua oso adierazgarria da», esplikatzen du ile luzeko musikariak, garai bateko rock izarren irudia duena. Abeslariak gogoratu du Uchpa taldea ia jolasean sortu zela, polizia soldata txikiarekin John Mayall, Johnny Winter, Jimmy

Hendrix, Janis Joplin, Led Zepelin, Deep Purple, AC/DC eta Rolling Stones bezalako taldeen kaseteak erosten zituen garaian.

Gero serioago hartuko zuen musika. Huaino Andeetako generoa eta rocka uztartuta “Ananao” («A ze mina!») sortu zuen aurrena. Baita Peru osoan arrakasta izango zuten abestiak ere, “Corazón contento” esaterako: aitzurren dantza tradizionalan dantzariak erabiltzen duten txapela ikusgarria buruan kantatzen zuena, Peru sakoneko pieza koloretsu eta esanguratsuena oholtzara eramanez. «Peruko dantzariak erena da. Txikitari, rocka, aitzurren dantza eta behi adarrekin egindako *waqrapuku* instrumentua uztartzearekin amesten nuen eta orain horixe egiten ari gara», azaldu du Ortizek Limako La Noche de Barranco lokalean abestu aurretik.

Uchpa taldeak hiriburuko lehen kontzertua amaitzean, gazte asko hurbildu zaizkio abeslariari Andeetako Cusco, Huancavelica edo Apurimaceko gurasoak dituztela harroharro esateko, Ortiz bera bezala. «Orain gaztetxo askok ez dute kitxuaz egiten, eta beste askok ezagutzen dute hizkuntza baina ez dute erabiltzen bazterketaren eraginez. Geure musikarekin, musika on eta



egungoarekin, geure ama hizkuntza erabiltzera animatu nahi ditugu, azken urteotan galtzen ari garen hizkuntza zabaltzera».

ABESLARI GAZTEEN INSPIRAZIO

Uchpa taldearen ibilbideak Peruko abeslari gazte ugari inspiratu ditu: Renata Flores, Ruby Palomino eta Liberato Kani, esaterako. «Uchpa taldeak kitxuaz egindako ‘The house of rising sun’ abestiaren bertsioa entzun nuenean zirrara sentitu nuen. Horixe izan zen nik egindako lehen bertsioa», kontatu du Renata Floresek, 14 urterekin Alicia Keys eta Michael Jackson bezalako artisten kantak egokituta Perun oso eza-gun egin zen abeslariak.

«Boom hura ez nuen espero. Burutik ez zitzaidan pasa ere egin kitxuari duen balioa ematearen aldeko mezua horrenbeste jendek ondo hartuko

«Geure musikarekin, musika on eta egungoarekin, geure ama hizkuntza erabiltzera animatu nahi ditugu gazteak, azken urteotan galtzen ari garen hizkuntza zabaltzera»

«Boom hura ez nuen espero. Burutik ez zitzaidan pasa ere egin kitxuari duen balioa ematearen aldeko mezua horrenbeste jendek ondo hartuko zuenik»



zuenik. Gainera, musikaren bi-tartez, guztiok hitz egiten dugun hizkuntzan alegia». Jada 18 urte beteta, uneotan Flores bere lehendabiziko diskoa prestatzen ari da. Abesti propioak izango ditu diskoak, eta, “Tijeras” abestian, traparekin ere ausartzen da abeslaria.

«Oso mezu potentea du ‘Tijeras’ abestiak eta doinuak zein egin dugun fusioa bera ere oso indartsuak dira. Nire faborittoa da. Abestiak emakumeei buruz hitz egiten du, isilik ez geratzeaz. Gaur egun dagoen ustelkeriaz ere hitz egiten du. *Uyariy nisqayki, manchakuychu rimayta* esaten du (“entzun guztiok, ez isilik geratu”)). Ayacucho sortutako abeslariak esan duenez, «kitxuaz abestea ardu bat ere bada, hizkuntza bat ikasi, maitatu eta errespetatu egin behar baita. Horixe da munduari zabaldu nahi diodana, kitxua oso hizkuntza ga-

rrantzitsua dela, kultura eta historia oso bat atzean ditue-na», erantsi du.

Kitxuaren zolitasuna eta Andetako hizkuntzan onomatopeiek duten adierazkortasuna gehiago nabarmentzen dira Liberato Kaniren rapean. Ricardo Flores Liman jaio eta Apurimac hazitako hip hop abeslariak erabiltzen du izen artistiko hori. «Nire mezua argia da: kitxuak eta gainontzeko jatorrizko hizkuntzek duten soinua beste edozein hizkuntzak duena bezain ederra da musika egiteko», nabarmendu du.

«Kitxuak geure historia eta kulturarekin lotzen gaitu. Kitxuaz egiteko ez dago ezkutatzen ibili beharrik. Gure nortasunarekin ondo sentitu nahi dugu, baina hori galtzen ari gara, batez ere hirietan. Zorionez, hori aldatzen ari da gazteek abian jarri dituzten proiektuei esker», amaitu du Liberatok.



Uchpa rock eta blues talde aitzindariak 25 urte daramatza kitxuaz abesten. UCHPA MUSIKA TALDEA